



Ebazpena, 2022ko uztailaren 1ekoa, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, Gernikan eta Muruetan Guggenheim Museoa handitzeko Busturialdea-Artibaiko Lurralde Plan Partzialaren aldaketa ez-funtsezkoaren irismen-dokumentua formulatzen duena.

AURREKARIAK

2022ko martxoaren 2an, Bizkaiko Foru Aldundiko Lurralde Kohesiorako Zuzendariordetzak eskaera bat aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzan, «Gernikan eta Muruetan Guggenheim Museoa handitzeko Busturialdea-Artibaiko Lurralde Plan Partzialaren aldaketa ez-funtsezkoaren» (aurrerantzean, Plana) ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua igortzeko, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean eta ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean xedatutakoari jarraikiz.

Eskabideari dokumentazio hau erantsi zitzaion: Planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen baitu, V. eranskinean dakarren formularioa.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Horien emaitza espedientean dago jasota. Era berean, izapideak martxan jarriko zirela jakinarazi zitzaion Bizkaiko Foru Aldundiaren Lurralde Kohesiorako Zuzendariordetzari.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, horretan interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloan egoki irizitako oharrak egiteko.

Behin txostenak jasotzeko indarreko legerian ezarritako epea bukatutakoan eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan dioenaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketen planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, ingurumenaren babes-maila handia bermatuz, garapen jasangarria sustatze aldera.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 72. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin behar zaie administrazio publiko batek abian jarritako plan



eta programei (II.A eranskinean zerrendatuta), bai eta haien aldaketei ere, legezko edo erregelamenduzko edota Gobernu Kontseiluaren xedapen batek beharturik prestatu baldin badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuek etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen badute eta eranskin horren 6. apartatuan jasotako arloei buruzkoak badira.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legeak xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Bestalde, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 18.1 artikuluan xedatzen ditu hasiera-eskabideari erantsi beharreko dokumentuak, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatzen du hasierako dokumentu estrategikoari erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, bai eta 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziako dokumentuaren edukiari eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte azaldutakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu dira, eta honako hauek guztiak ikusi: Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legea; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Busturialdea-Artibaiko Lurralde Plan Partzialaren aldaketa ez-funtsezkoaren (aurrerantzean, Plana) ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua formulatzea Gernikan eta Muruetan Guggenheim Museoa handitu ahal izateko, baldintza hauen arabera:

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

Planaren xedea da Busturialdea-Artibaiko Eremu Funtzionalaren (lehenengo Gernika-Markina) indarreko Lurralde Plan Partziala (LPP) aldatzea, Urdaibain kultura-gune berezi baten kokalekua zehazteko, Guggenheim museoa handitzeko, hain zuzen ere.

1.1. Aurrekariak

Gernika-Markinako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala behin betiko onartu zen martxoaren 1eko 31/2016 Dekretu bidez, eta, hura antolatzeko arauekin batera, Euskal Herriko

Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2016ko apirilaren 19an. Eremu Funtzional horri Busturialdea-Artibai deitzen zaio gaur egun, uztailearen 30eko 128/2019 Dekretu bidez onartutako indarreko Lurralde Antolamenduaren Gidallerroetan adierazitakoarekin bat etorriz.

Indarrean dagoen LPPak Sukarrietan kultura-ekipamendu berezi bat kokatzea aurreikusten du, Urdaibai Biosfera Erreserban.

1.2. Helburuak eta proposatutako jarduketak

Planak alde batera uzten du indarreko LPPak proposatzen duen alternatiba, Guggenheim museoaren egoitza berria Sukarrietan eraikitzea, eta museoa bi egoitzatan handitzea planteatzen du, Gernikako eta Muruetako udalerrietan, hurrenez hurren. Foruko udalerriko lurzoru urbanizaezinetatik igaroko den oinezkoentzako ibilbide batek bi egoitzak elkarrekin lotuko ditu.

Guggenheim museoa handitzeko bi egoitza berriak hiri-lurzoru industrialean daude, Dalia fabrika zaharra (Gernikan) eta Muruetako ontziolak (izen bereko udalerrian) dauden lurretan.

Gernikako eta Muruetako egoitzak 5 km inguruko oinezkoentzako ibilbide batek lotzen ditu; ibilbide hori Urdaibaiko itsasadarretik hurbil igarotzen da eta GR 123 bidezidorrarekin bat egiten du zati batean.

Museo-proiektuak ibilgailu partikularrek eta autobus turistikoek aparkatzeko bi lurrazal gaitzea aurreikusten du, bat egoitza bakoitzeko. Ibilgailu publiko edo pribatuak, bizikletak, patinetek eta abarrek Gernikatik Bermeora doan BI-2235 errepideko galtzada eta bidegorria erabili beharko dituzte. Era berean, bi egoitzak trenbide bidez konektatuta geratuko dira.

Muruetako ontziola eraiki eta haren handitze-lanak egitean, Urdaibaiko padurako lursailak okupatu eta itsasadarraren kanala bera inbaditu ziren; horrela, hura estutu eta ur-fluxua aldatu egin zen puntu horretan. Planaren bidez egoera hori leheneratu nahi da, itsasadarrak puntu horretan duen sekzioa zabalduz eta itsasadarraren dinamikarekiko inpaktuak ezabatuz.

Muruetako ontziolen eremua hiri-lurzoru finkatua da eta 4,08 ha ditu. Cubiertos Dalia fabrika zaharra Gernika-Lumoko industria-lurzoruan dago eta 1,77 ha ditu. Bi lurzoruak lotzen dituen bidea Forua udalerritik igarotzen da batik bat.

Lurralde Plan Partzialaren aldaketak hiru udal-mugarteri eragiten die, eta beraz, udalaz gaindiko eremu bat definitzen du, Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako Bateragarritze Planaren bidez antolatuko dena.

Bateragarritze Planak honako gai hauek jorratu beharko ditu:

- Eragindako plangintza orokorren (Muruetan, Forua eta Gernika-Lumo) aldaketak formalizatu beharko ditu, eta, beraz, industria-erabilera aldatu eta kultura-ekipamendu bereziaren zuzkidura-erabilera eman ahal izango zaio.
- Ekipamenduaren ezaugarriak xehatu beharko ditu, ezarpenak eragindako inpaktua eta ondorioak xehetasunez aztertuz.
- Egokitze-epea ezarri beharko da, udal-plangintzek aldaketa horiek barne har ditzaten.

1.3. Alternatibak

Bost plangintza-alternatiba baloratu dira: «0» alternatiba, ez esku hartzekoa; 1. alternatiba, Murueta-Gernika egoitza bikoitz batean egitea eta horiek elkarrekin lotzeko bideak planteatzen dituen; 2. alternatiba, esku-hartze osoa Gernikan gauzatzea jasotzen duena; 3. alternatiba, esku-hartze osoa Muruetan gauzatzea jasotzen duena; eta 4. alternatiba, 1. alternatiba Murueta-Gernikan ezartzeaz gain, eskultura-parke bat barne hartzen duena, bi egoitzak lotuko lituzkeen pasealeku zabal baten inguruan antolatua.

Alternatibak aztertu ondoren, eta hasierako dokumentu estrategikoarekin bat etorritik, 1. alternatibaren aldeko hautua egin du planak.

2. Aplikatzekoak diren ingurumen-helburu estrategikoak eta jasangarritasuneko printzipioak eta irizpideak

Ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du programak nola laguntzen duen 2020ko IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketako-ildoak lortzen. Horrez gain, arau hauetan bildutako irizpideak jaso beharko dira: Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legea; plan eta programen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua; eta Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legea. Era berean, lurzoru urbanizaziotik jarduketetan kontuan izan beharko dira, batetik, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuko helburuak, gidalerroak eta jasangarritasun-adierazleak, eta, bestetik, ekainaren 4ko 358/2013 Dekretua; azken horren bidez, Kontserbazio Berezikotako Eremu (KBE) izendatzen dira Urdaibai eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuan dauden Batasunaren Garrantzizko 4 Leku, eta onartu egiten dira KBE horien eta Urdaibaiko itsasadarreko HBBEaren kontserbazio-neurriak.

Era berean, kontuan hartuko dira planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

Zehazki, garapen jasangarriko printzipio hauek zuzenduko dute plana:

- a) Lurzorua zentzuz eta intentsitatez erabiltzea eta lehendik ere artifizialdurik dauden lurzoruen erabilera intentsiboaren lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizaziotik babestuz.
- b) Hiri-segregazioa, hiri-barreadura eta mugikortasun behartua saihestea irisgarritasuna sustatzeko asmoz, lurzoruaren erabilera plangintza integratuaren, mugikortasunaren, eta hiri-egitura dentsu, trinko eta konplexuen bidez.
- c) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzorua jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- d) Habitata eta espezieak, ingurumen naturala eta konektibitate ekologikoa zaindu eta hobetzea.
- e) Biodibertsitatearen galera geldiaraztea, ekosistemak lehengoratztea eta lurzoruaren artifizializazioa mugatzea.
- f) Paisaiak eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- g) Ondare geologikoa kontserbatzea.
- h) Ur-masen egoera ekologikoa ona lortzea, bai eta baliabide horren erabilera jasangarria ere.
- i) Baliabide naturalen erabilera jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- j) Sustatzea energia aurrezteko, energia berriztagarrien eraginkortasuna eta erabilera eta kogenetazioa.

- k) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien eraginpean bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- l) Klima-aldaketarekiko urrakortasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta egokitzeko neurriak integratuz.
- m) Arrisku naturalak minimizatzea.
- n) Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, eragileen eta lurzoruaren erabiltzaile potentzialen berme juridikoa eta jarduera indartuz.

3. Esparru geografikoa eta ingurumen-garrantziko eremuak

Plana natura-balio anitzeko eremu batean dago kokatuta. Urdaibai Biosfera Erreserbaren barruan dago, eta horixe da baldintzatzaile nagusietako bat; baina, zentzu horretan, bi egoera hautematen dira. Horrela, etorkizunean museoa handitzeko erabiliko diren bi egoitzak hiri-lurzoruak dira, eta, beraz, ez zaie aplikatu behar Urdaibai Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planaren (EKZP) araudia. Dalia eta Murueta arteko bidearen zatirik handiena lurzoru urbanizaezinean dago, eta, beraz, EKZPa aplikatu behar zaio.

Jarraian, Planaren eremuak barne hartzen dituen ingurumen-balio nagusiak laburbiltzen dira:

Natura 2000 Sarea

Eremuak honako KBE hauek hartzen ditu barne: ES2130006 Urdaibaiko Ibai Sarea, ES2130007 Urdaibaiko artadi kantauriarrak eta ES2130008 Urdaibaiko Itsasertzak eta Padurak, ES0000144 Urdaibaiko Itsasadarra HBBE eremuaren baitan dagoena.

Muruetakoa ontziolak Urdaibaiko Itsasadarra HBBEren mugen barruan daude erabat. Lurzatiaren bi zati txiki, ipar-ekialdeko eta ipar-mendebaldeko muturretan, Urdaibaiko itsasertz eta paduren KBEen kokatuta daude.

Dalia mahai-tresnen fabrika zaharra ez dago sartuta Natura 2000 Sareko eremuetan; Urdaibaiko Ibai Sarea KBE da gertuen dagoena, 100 m ingurura.

Egoitzak elkarrekin lotzen dituen bidearen zati handi bat Urdaibaiko Itsasadarraren HBBEtik eta Urdaibaiko itsasertzak eta padurak KBEtik igarotzen da, hegoaldeko muturreko 500 metroetan salbu, Gernikan.

Landaredia, Batasunaren intereseko habitatak (BIH) eta flora mehatxatua

Dalia fabrika zaharra eta Muruetako ontziolak kokatuta dauden eremuetan ez dago landaredi naturalik. Bi egoitzak elkarrekin lotzen dituen bidezidorra bat dator GR-123 errepidearekin, eta, beraz, bide horren plataforman ere ez dago landaredi naturalik, baina bai errepidearen ertzetan; izan ere, landare erruderalak eta nitrofiloak daude, edo erabiltzaileei itzala emateko landareak. Bidearen inguruan badira beste formazio batzuk ere, batik bat belardiak eta laboreak, baina baita padurako landareak, lezkadiak eta beste larre batzuk ere, ohikoenak aipatzearren.

Muruetakoa ontziolen inguruan, Paduren 1130 BIH itsas habitata dago; eta lurreko habitaten artean, berriz: 1410 Larre gazi mediterraneoak, 1420 Sastrakadi halofilo mediterraneoak eta 6510 Altitude baxuko sega-belardi pobreak. Cubiertos Dalia fabrika zaharraren kasuan, lurzatiarekin muga egiten duten BIHak Oka ibaiaren ibilerarekin lotuta daude; bertan kokatuta daude 1130 Estuarioa BIH eta *91E0** *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieen baso alubialak.

Landaredi naturalik ez dagoenez, ez da hauteman flora mehatxaturik Dalia fabrikaren inguruan eta Muruetako ontzioletan. Gauza bera gertatzen da GR-123 errepedeko plataformarekin ere.

Bestalde, Muruetako ontziolatik hurbil bada galzorian dagoen landare bat, *Zostera noltii*. Espezie horrek Berreskuratze Plan bat du.

Itsas-lehorreko jabari publikoan eta jabari publiko hidraulikoan izango duen eragina

Muruetako ontziolen ekialdeko zati txiki bat eta bi dike lehorrak itsas-lehorreko jabari publikoan daude. Lurzatiaren gainerako zatia babes-zortasuneko eremuan dago ia osorik.

Cubiertos Dalia jabari publiko horretatik kanpo dago. Lurzatiaren ekialdeko eta iparraldeko zati txiki bat itsas-lehorreko jabari publikoaren babes-zortasuneko eremuan dago.

Beste ingurumen-balio eta beste babes-figura batzuk

- Mundaka-Gernika itsasadarra RAMSAR hezeguneen zerrendan dago. Era berean, interkonexio-bidearen zati handi bat hezegune horretatik igarotzen da, hegoaldeko zatia izan ezik, Gernikatik hurbil. Cubiertos Dalia hezegune horretatik kanpo dago, ia kilometro bat iparrerago.
- Oka ibaiaren inguruko hezegunea Espainiako Hezeguneen Inbentarioan dago.
- Urdaibaiko itsasadarra Euskadiko Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialeko I. Multzoan sartuta dago. Urdaibai Biosfera Erreserbaren mugen barruan dagoenez, EKZPren araudiak arautzen du.
- Bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) kudeaketa-planaren eremuak, 118/2006 Foru Dekretu bidez onartuak, iparraldean eta ekialdean muga egiten du Muruetako Ontziolen egoitzarekin, eta konexio-bidearen ibilbidearen zatirik handiena barne hartzen du. Cubiertos Daliaren kokalekuak ere Planaren eremuarekin muga egiten du.
- Onartutako kudeaketa-plan bat duten eta Planaren eremuan dauden beste espezie batzuk ekaitz-txori txikia (*Hydrobates pelagicus*) eta ubarroi mottoduna (*Phalacrocorax aristotelis*) dira.
- Planaren eremu osoa, Gernikako egoitza izan ezik, IBA 35 Urdaibai-Matxitxako eremuaren barruan dago.
- Badira mehatxatutako zenbait kiroptero-espezie ere: koba-saguzarra (*Miniopterus schreibersii*), ferra-saguzar handia (*Rhinolophus ferrumequinum*), ferra-saguzar mediterraneo (*Rhinolophus euryale*) eta Geoffroy saguzarra (*Myotis emarginatus*). Urdaibaiko EKZPak antzinako eraikinekin lotutako fauna-espezie jakin batzuk babesten ditu, hala nola kiropteroak. Urdaibaiko fauna-katalogoak 16 kiroptero-espezie hartzen ditu barne, Habitategi buruzko Zuzentarauaren IV. eranskinean sartuta daudenak (hertsiki babestuak).
- Era berean, ES2130008 Urdaibaiko Itsasertzak eta Padurak KBE fauna-espezie mehatxatu askoren habitata da; horien artean daude, besteak beste, tokiko dortokak, arrain hiruarantza eta hainbat hegazti akuatiko eta migratzaile, zona horretan atsedean hartzen eta elikatzen direnak. Horrez gain, estuarioetako flora-espezie mehatxatu askoren habitata da, hala nola *Suaeda*, *Salicornia* eta *Sarcocornia* generoena.
- EAEko Igarobide Ekologikoen Sarea. Euskadiko Igarobide Ekologikoen Sareko R8.2 igarobidea Muruetako ontzioletatik 250 m ingurura dago. Igarobide horrek itsasadarraren bi aldeetako artadi kantauriarrak lotzen ditu, eta Murueta ontziolen eta Cubiertos Dalia fabrikaren arteko lotune/bidezidorretik igarotzen da.
- Kultura-ondarea. Murueta Ontziolen kokalekuaren hegoaldeko muturrean, «Bateltoki Teileria» deituriko elementua dago, «ustezko gune arkeologikoen» kategoria eta

babes-maila dituena, eta 8 fitxa-zenbakia (1997ko ekainaren 13ko EHAA, 112. zk.) duena.

- Planaren eremua bat dator Gernikako akuiferoaren babes-perimetroaren mugekin. (Ebazpena, 2004ko azaroaren 21ekoa, Uren zuzendariarena; ebazpen horren bidez erabakitzen da Ibarra, Eusko Trenbideak eta Ajangiz-A hartuneak (Bizkaia) babesteko Gernikako Unitate Hidrogeologikoaren babeseko perimetroa adieraztea). Era berean, Gernikako akuiferoaren babes-perimetroa Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoaren eremu babestuen erregistroan sartuta dago.

Kutsatutako lurzorua

Cubiertos Dalia fabrika zaharra Gernikan dago, 209/2019 Dekretuaren arabera, «lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan» jasotako kokaleku batean. «Industrial» gisa inbentariatuta dago, 48046-00152 kodearekin. Kokaleku horrek Cubiertos Dalia enpresaren orube ia osoa hartzen du, baina, horrez gain, Oka ibilguraino hedatzen da.

Muruetako ontziolen kokalekua bat dator lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioko kokaleku batekin. Kasu honetan, bi gune bereizten dira kokalekuaren barruan: 48908-00001 kodea duen lurzorua ontziola bat hartzen du barne, eta 48908-00002 kodeko lurzorua, berriz, zabortege bat.

Urpean gelditzeko arriskua duten eremuak

Dalia fabrikaren (Gernikan) ia eremu osoa uholde-xaflaren barruan dago, eta hark 10 urteko errepikatze-denbora du.

4. Jarduketak kokatzeko eremu desegokiak

Ingurumen-azterketa estrategikoak ingurumen-ikuspegitik arazotsuak izan daitezkeen eremuak detektatu beharko ditu, proposamenak horietara egokitzeko. Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko. Ingurumen-ondorioetarako, aurreko apartatuan jasotzen diren eremu garrantzitsuak planeko jarduketak kokatzeko egokiak ez diren eremutzat jotzen dira printzipioz, zehazki kasuan kasuko lurralde- eta sektore-araudiak eta -plangintzak mugatzen edo debekatzen dituzten eremuetan –Kosten Legea, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, Ibaien eta erreken ertzak antolatze LPSak, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa, eta zehazki uholde-arriskuko eremuekin lotutako zehaztapenak, Natura 2000 Sareko guneak izendatzeko dekretuak, Urdaibai Biosfera Erreserbaren erabilerarako eta kudeaketarako egitamua eta espezie mehatxatuen kudeaketa-planak–.

5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-azterketa laburra

Jarraian laburbiltzen da zein diren ingurumen-alderdi garrantzitsuenak izapide honetan jasotako txostenetan: ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulta.

Itsas-lehorreko jabari publikoa eta hari lotutako babes-zerrenda babesteari dagokionez:

- Busturialdea-Artibai Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala garatzeko irizpide, helburu eta proposamen orokorrek bateragarriak izan behar dute Kosten Legeak zehazten duenarekin.
- Agiri grafiko guztietan behar bezala adierazi beharko dira itsasoko ur ertzaren lerroak, itsas-lehorreko jabari publikoaren mugak, igarotze- eta babes-zortasunak, eraginpeko eremua eta itsasorako sarbideak. Era berean, grafikoki adierazi beharko dira itsasertzean dauden oinezko eta ibilgailuentzako sarbideak, itsasora sartzeko zortasunari dagokionez.
- Itsas-lehorreko jabari publikoaren ondasunei dagokienez, jabari hori kasu hauetan bakarrik okupatu ahal izango da: beren izaeragatik, beste kokapenik izan ez dezaketen jarduketa edo instalazioetarako bakarrik, betiere eremu horiek okupatzeko baimena ematen duen titulua lortu ondoren.
- Igarotze-zortasunari dagokionez, hark beti libre egon beharko du oinezkoak eta zaintzarako nahiz salbamendurako ibilgailuak bertatik igaro daitezten. Eragindako itsasertzeko eremuetan igarotze-zortasuna bermatzen ez bada, beste igarotze-zortasun bat aurreikusi beharko da.
- Babes-zortasuneko eremuari dagokionez, oro har, edozein eraikuntza babes-zortasuneko eremu horretatik kanpo kokatu beharko da. Hala ere, ez da baztertzeko behar den moduan justifikatzea egin nahi diren obrek eta instalazioek, beren izaeragatik berariaz debekatzen ez direnek, babes-zortasuneko eremuan duten kokapena baino ezin dutela izan, edo jarduketa horren bidez itsas-lehorreko jabari publikoa erabiltzeko beharrezko edo komenigarriak diren zerbitzuak ematen direla egiaztatzea. Horrez gain, kontuan izan beharko da debekatuta dagoela hiri barruko garraiobideak eraikitzea edo aldatzea, horien trazadurak babes-zortasuna zeharkatzen badu. Babes-zortasunean debekatuta dago, halaber, goi-tentsioko aireko linea oro.
- 500 metroko eraginpeko eremuari dagokionez, berariaz justifikatu beharko da eraginpeko eremuak eragindako lurzoru urbanizagarri programatuko edo baliokideko sektoreetako lursailen eraikuntza-dentsitatea (m^2/m^2) ez dela, inola ere, eragindako udalerrri osoko lurzoru urbanizagarri sektoretan batez besteko dentsitate haztatua baino handiagoa, lurzoruaren kalifikazioa dena dela. Hiri-lurzorurako nahiz urbanizagarriarako, berariaz jaso beharko da, eragin-eremuan, eraikuntzak hirigintza-legerian ezarritakora egokitu beharko direla, eta arkitektura-pantailak edo bolumen-metaketak saihestu beharko direla, proposatutako eraikinen antolaera eta altuera ingurunearekin harmonikoki egin dadin, ikus-eremua mugatu gabe eta itsasertzaren ikuspegia desitxuratu gabe. Hondartza duten zatietan eta ibilgailuen trafikorako sarbidea duten zatietan, ibilgailuen aparkalekuetarako lur-erreserbak ezarri beharko dira, igarobide-zortasuneko gunetik kanpo aparkalekuak bermatzeko bestekoak.
- Lurralde Plan Partzialaren araudiari dagokionez, hark berariaz jaso beharko ditu kostei buruzko legearen zenbait alderdi, honako hauek, besteak beste: itsas-lehorreko jabari publikoaren erabilera, babes-zortasuneko zonako erabilerak, itsasora igarotzeko eta iristeko zortasunak eta eragin-eremurako baldintzak errespetatzea, Koste buruzko Legea indarrean sartzeko zeuden obrak eta instalazioak arautzea, eta saneamendusareko instalazioetarako baldintzak. Muga horiek kontuan izan beharko dira edozein lurzorurako, horien hirigintza-sailkapena eta kalifikazio urbanistikoa denak direla.

Kultura-ondareari dagokionez:

- Etorkizunean kultura-ekipamendua kokatzeko aukeratu diren kokalekuak (Cubiertos Daliaren fabrika Gernikan, eta Muruetako ontziolak) erabilerarik gabeko industria-ondasunak dira. Eremuaren industria-izaera kontuan hartuta, etorkizuneko proiektuak aldeztatik aurretiko azterketa barne hartu beharko luke kultura-ondarearen ikuspegitik,

hala, manten litezkeen industria-ondarearen ondasun eta elementu esanguratsuenak mantentzeko eta horiei balioa emateko aukera kontuan izan dadin, oraintsuko industria-iraganaren ikono gisa, balio nabarmena eman baitiezaieke etorkizuneko arkitektura-proposamenei.

Sarbideei eta trafikoaren gorakadari dagokienez:

- Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, Muruetako ontziolen instalazioetara (kultura-ekipamendu berezia) urtean 140.000 pertsona joango direla aurreikusten da. Muruetako udalerrian zehar oinezkoen joan-etorria handitu egingo dela kontuan hartuta, eraikiko den oinezkoentzako irisgarritasunak masifikazioa saihestu beharko du gune sentikorretan, eta bertan dauden bizitegi-zonetan barruko zirkulazioan desorekak ez sortzen saiatu beharko da. Horrenbestez, Muruetako Udalak eskatu du proposatutako trazadura baztertu dadila eta sarbidea ertzeko pasealekutik egin dadila, Muruetako punta ontziolaren gaur egungo instalazioekin lotuz; horrela, Bateltoki teileriatik eta Dinamitako izeneko zamalekutik igaroko litzateke.
- Proposatutako oinezkoentzako bidearen beharra justifikatu eta alternatiben azterketa bat egin beharko da, eta, aztertu beharreko alternatiben artean, estuario-zerrendatik urrun dauden bideak edo egun eta ordu bakoitzeko bisitari kopurua arautu beharko dira.
- Lurralde Plan Partzialak mugikortasun-azterketa bat barne hartu beharko du, energia-kontsumoaren ondorioetarako, garraio pribatuaren erabileraren ordezkotzat aukerak ere sartuta, eta mugikortasun ez-motorizatua eta mugikortasunik eza sustatzeko politikak.

Ingurune fisiko biotikoari eta abiotikoari dagokionez:

- Eragindako udalerrien ingurune fisikoaren ezaugarritze zehatza, Kortezubi barne. Inguruko biodibertsitatea nabarmendu behar da habitatak eta espezieak babesteari dagokionez, eta ekosistemak mantentzeko eta leheneratzeko dagokionez, bereziki 1. alternatibak barne hartzen duen bidearen trazaduran, proposatu diren Muruetako eta Gernikako egoitzen artean.
- Apartatu gehigarri eta espezifiko bat txertatu beharko da proiektuak Natura 2000 Sarean izango dituen ondorioen ebaluazioari buruz; izan ere, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearekin bat datorrela bermatu beharko da.

Gernikako akuiferoaren lurpeko urak eta horien babes-perimetroa babesteari dagokionez:

- LPParen dokumentazio kartografikoan nahitaez mugatu beharko da 2. eremua edo «Ibarra, Eusko Trenbideak eta Ajangiz-A Hartuneak babesteko Gernikako Unitate Hidrogeologikoaren babeseko perimetroa» babes-eremu fisikoa.
- LPPak jaso beharko du, hura garatuko duen etorkizuneko Bateragarritze Planean, 2. eremuaren mugez gain, Dalia fabrika zaharraren kokalekuan aurreikusitako jarduketak gainjarri beharko direla, oinplanoan nahiz profilean, betiere jarduketa horien irismena ezagutzeko, eta akuiferoekin eta bertako gune kutsatuekin izan dezakeen interakzioa ezagutzeko.
- Dalia enpresa zaharraren lurzatian kutsadura handiko fokuak daude hainbat kutsatzailek eta, bereziki organokloratuek eraginda, eta konposatu horiek eragina izan dezakete lurzoruetan eta lurpeko uretan. Horregatik, Gernikako Perimetroan xedatutakoa betetzeaz gain, lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpen-espeditentaren esparruan egin beharreko jarduketek bat etorri beharko dute Uraren Euskal Agentziaz egiten ari diren akuiferoak leheneratzeko mekanismoak hobeto ezagutzeko lanekin.

Uholde-arriskuari dagokionez:

- Dalia fabrika zaharraren eremuko uholde-arriskuaren egoerari dagokionez –kultura- ekipamendu berezia bertan eraikitzea proposatzen da–, Bateragarritze Planak behar bezala bermatu beharko du, azterketa hidraulikoen bidez, araudi aplikagarria betetzen dela (Plan Hidrologikoa eta EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektoriala) eta, bereziki, proposatutako garapenek, araudi hori betetzeaz gain, eremuko eta inguruko uholde-arriskua areagotuko ez dutela, eta hirugarrenei kalteak eragingo ez dizkietela.

Baliabide hidrikoen hornidurari eta erabilgarritasunari dagokienez:

- Berme-gabeziaren arazo larria dago baliabide hidrikoei, ur-eskaerak asetzeari eta ibilgu ekologikoak errespetatzeari dagokionez, batik bat agorraldian. Arazo horren eraginez, baliabideak gehiegi ustiatzen dira. Izan ere, hartune nagusiekin lotutako erreketan ibilgu ekologikoak erabiltzen dira agorraldietan beharrezkoak diren baliabideak lortzeko; azken udetan, adibidez, Golako, Mape edo Olalde errekek oso ibilgu txikia izan dute edo ia guztiz lehortu dira horren ondorioz. Egoera hori oso ingurumen-arazo larria da; izan ere, horixe da ibilgu ekologikoak betetzeko arazorik handiena Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografiko osoan. Eta jakina, horri guztiari eremuaren ingurumen-interes berezia gehitu behar zaio, baita Urdaibai Biosfera Erreserbaren presioekiko sentikortasuna ere. Aipatutako kultura-ekipamendu berezia garatuko duen eta eragindako plangintza orokorren aldaketak formalizatuko dituen Bateragarritze Plana behin betiko onartzeko, Gernikan eta Muruetan aurreikusitako kultura-ekipamenduaren hornidura bermatzeko beharrezkoak diren baliabide hidrikoen erabilgarritasuna ziurtatu beharko da aurrez.

Saneamenduari dagokionez:

- Guggenheim museoa handitu ahal izateko, sortutako hondakin-ur guztiak Lamiarango HUAra bideratu beharko dira (Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak kudeatzen du).

Urdaibai Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planarekiko bateragarritasunari dagokionez:

- Ekipamendu berria osatuko duten bi eraikinen arteko lotura ahalbidetuko duen oinezkoentzako pasealekuari dagokionez, hura dagoeneko Plan Zuzentzailean jasota dagoenez, ez da aldaketa ez-funtsezko honetan sartu beharrik izango, ezta hark definitzen duen Bateragarritze Planean ere.
- LPParen aldaketa ez-funtsezkoak –31/2016 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarria aplikatuta– behar bezala jaso beharko du bizikleten irisgarritasuna bermatzeko azpiegituraren irismena eta trazadura; horrez gain, beharrezkoak diren elementuak zehaztu beharko dira, trenbide-sarea museo berriarekin lotzeko bitarteko nagusietako bat bihur dadin.

6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena

Ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterketa) abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. Eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da, halaber, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoa.

Aurrekoarekin bat etorritz, garatuko diren apartatuek honako eskema metodologiko honi jarraitu beharko diote:

1. Proposatutako Planaren deskribapena
 - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3. Plangintza-alternatibak
2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea
 - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-efektuak
4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da ingurumen-azterketa estrategikoak hurrengo alderdietan sakondu behar duela jarraian adierazten den zabaltasun-eta zehaztasun-mailarekin:

6.1. Planaren deskribapena

Deskribatuko da zer alderdik osatzen duten plana, eta argi eta garbi identifikatuko da Plana gauzatzeak etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzakeen efektu kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Zehaztuko da zer arau-esparruk arautzen duen Plana onartzeko prozedura, eta identifikatuko da nor den behin betiko onespeneraren organo sustatzailea eta organo substantiboa.

b. Hierarkian Plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira planaren xedearekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita ingurumena babesteko planari aplikatzen zaizkion irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Hierarkian Plana baino goragoko planak edo programak onartzeko egintzaren eta dataren erreferentzia emango da, eta plan edo programa horiei ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin zaien ala ez zehaztuko da; hala bada, plan edo programa horien ingurumen-adierazpen estrategikoan ezarritako irizpideak eta zehaztapenak jasoko dira, Planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak direnak.

Honako hauek izan beharko dira kontuan, gutxienez: arauetan zehazten diren ingurumena babesteko helburuak eta zehaztapenak, eta Planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuk (Batasunekoak, Estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak), baldin eta aplikatu beharrekoak badira.

Zehazki, eta beste batzuen artean, honako plan eta arau hauek hartuko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2015-2021); bereziki uholde-arriskuko zonei lotutako zehaztapenak.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (2015-2021).
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoru Publikoa sortzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala.
- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana (EKZP).
- Ekainaren 4ko 358/2013 Dekretua, Urdaibaiko eta Gaztelugatxeko San Joaneko esparruan garrantzi komunitarioko 4 leku Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen dituen, eta KBE horien eta Urdaibaiko Itsasadarra HBBEren kontserbatzeko neurriak onartzen dituen.
- Espezie mehatxatuen kudeaketa-planak (ubarroi mottoduna, ekaitz-txori txikia eta bisoi europarra).
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.

c. Azterketan, laburpen txiki bat jasoko da Planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruz. Gainera, Azterketak labur-labur jaso beharko du nola hartu diren kontuan, Plana prestatu bitartean, Ebazpen honetako 2. apartatuan jaso diren ingurumena babesteko helburuak eta jasangarritasun-printzipioak eta -irizpideak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak era espezifikoan justifikatu beharko du Planak nola ezartzen dituen arestian azaldutako ingurumen-helburuak eta zein ekarpen egiten dion proposatzen dituen erabileren erregimenetik eta egiturazko edo bestelako neurrien ondorio negatiboak murrizteari; hori guztia LPPren ezaugarriak antolatzeko dokumentu baten berezko xehetasun-mailarekin.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a.- Planaren irismenak ezin hobeto definituta geratu behar du. Planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen zehatz bat garatuko du Azterketak, eta haiek lotura izan beharko dute planak eragindako eremuan indarrean den antolamenduaren aldean dakartzan aldaketekin, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzakete, betiere eremua garatzeko beharrezkoak diren jarduketa guztiak aintzat hartuta.

Kontuan hartuta LPPa aldatzearen helburua Guggenheim museoa handitzea dela –bi egoitza planteatzen dira, Gernikan eta Muruetan, eta bi egoitzak oinezkoentzako ibilbide batekin lotuta geratuko lirateke, Foruko lurzoru urbanizaezinetan–, azterketak behar bezala aztertu beharko du jarduketa horiek lurraldean zer nolako harrera-ahalmena duten; instalazioetara irisgarritasuna zehazteko orduan (bide-sarea, oinezkoentzako pasabidea, bidegorria, trenbide-sarea eta abar), jendearen joan-etorria handitu egingo dela izan beharko da kontuan, baita kultura-ekipamenduaren hornidura bermatzeko baliabide hidrikoak badaudela ere. Gainera, azterketak mugikortasun-azterketa bat barne hartu beharko du, energia-kontsumoaren ondorioetarako, garraio pribatuaren erabileraren ordezkotako aukerak ere sartuta, eta mugikortasun ez-motorizatua eta mugikortasunik eza sustatzeko politikak.

b. Planeko proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektu eta jarduketan ezaugarriak buruzko aurreikuspen bat egingo da.

Planaren barnean egonik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartutako proiektuak identifikatu beharko ditu Azterketak, garapenaren baldintzak ezartzeko eta, hala badagokio, proiektuak gauzatzean ahalik eta kalte gutxien sortzeko gidalerroak ezartzeko.

c. Ingurumenean eragina izan dezaketen Planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira (Guggenheim museorako egoitzak deskribatuko dira, baita eremuaren irisgarritasunari erantzuteko jarduketak eta hornidura hidrikoa bermatzeko jarduketak ere), eta garrantzi gehien dutenetik gutxien dutenera hierarkizatuko dira; horrela, horien kokapen zehatza, izaera, tamaina eta baliabide naturalen kontsumoa izango dira kontuan. Horrela deskribatutako plan-ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo apartatueta erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, baita planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da garapen-tresna eta/edo -proiektu horiek ingurumen-ebaluazioaren mende egon daitezkeela.

e. Nolanahi ere, Plana garatzeko zenbat denbora aurreikusten den erantsiko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

f. Epigrafe honetan biltzen den informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera islatuko du, bai eta ingurumen-ondorio nabarmenak ekar ditzaketen Planaren aurreikuspen eta jarduketak ere. Informazio kartografikoa atxiki beharko da, gutxienez hauek jasoko dituen: eremuaren mugaketa eta jarduketa guztien kokapena, pdf eta shape formatuetan. Agiri grafiko guztietan behar bezala adierazi beharko dira itsasertzeko lerroak, itsas-lehorreko jabari publikoaren mugak, igarotze- eta babes-zortasunak, eraginpeko eremua eta itsasorako sarbideak. Era berean, grafikoki adierazi beharko dira itsasertzean dauden oinezko eta ibilgailuentzako sarbideak, itsasora sartzeko zortasunari dagokionez. Era berean, kartografikoki aurkeztu beharko dira 2. eremua edo «*Ibarra, Eusko Trenbideak eta Ajangiz-A Hartuneak babesteko Gernikako Unitate Hidrogeologikoaren babeseko perimetroa*» babes-eremu fisikoa.

6.1.3. Plangintza-alternatibak

a. Azaletik deskribatuko dira plana emateko prozesuan kontuan hartu diren alternatiba guztiak. Alternatiba horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoa, garapen-denbora, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi. Era berean, 0 alternatiba edo esku ez hartzeko alternatiba ere hartuko da kontuan. Kasu horretan, honako hau izango da erreferentzia: jarduketa-eremuaren alderdi garrantzitsuek izan dezaketen bilakaera Planaren proposamenak aplikatu ezean.

Dagokigun kasuan, ez dira jasoko Guggenheim museoaren egoitzak kokatzeko alternatibak bakarrik; eremura iristeko alternatibak ere planteatuko dira, baita baliabide hidrikoen erabilgarritasuna bermatzeko alternatibak ere. Oinezkoentzako irisgarritasunari dagokionez, kokalekuaren hainbat alternatiba aztertu beharko dira; estuarioaren zerrendatik urrun dagoen alternatiba bat jaso beharko da gutxienez, baita jarduketaren dimentsionamenduarena ere.

b. Alternatiba horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen alternatiba bakoitzaren arabera Planean jasotako proiektuen eta ekintzen eta 6.1.2.b apartatuan deskribatutako proiektuen eta 6.1.2.c apartatuan deskribatutako ekintzen artean.

c. Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-alternatibak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako alternatiba.

d. Aztertutako alternatibak kartografikoki jasoko dira.

6.2. Ingurumenaren egoeraren ezaugarriak

Azterketak deskribatu beharko ditu zein diren ingurumenak egun duen egoeraren ezaugarri nagusiak Planak eragiten duen eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai beren interakzioen ikuspuntutik, ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emanez.

Planaren afekzio-eremutzat hartuko da, antolamendu-eremu osoaz gain, eremu horren ingurunerik hurbilena –Planaren ekintzek ingurumen-efektu garrantzitsuak izan ditzaketen gunek bakarrik hartuta–.

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterlanetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den izenburua, urtea, egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana osorik kontsultatzeko.

Azterketak ingurunearen aldagaiak jasoko ditu, eskala egokiko planoetan.

6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, masak eta ur-puntuak, faktore klimatikoak eta lurzoru mota.

b. Natura-ondarea. Jasota utziko dira dauden natura-intereseko eta interes ekologikoko elementuak, hala nola ibaien ibilguak, mehatxatutako fauna- eta flora-espezieen banaketa-eremuak, Batasunaren intereseko habitatak, naturagune babestuak, hezeguneak, espezie autoktonoen basoak, landaredia, flora eta fauna autoktonoak, interes geologikoko lekuak, korridore ekologikoak, eta abar. Dauden elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira, bai eta interes-mailari, kalteberatasunari eta egungo presioei eta mehatxuei buruzko datuak ere, eta Plana gauzatzearen ondorioz areagotu egin daitezkeen adieraziko da.

Zentzu horretan, aukeratutako garapen-alternatibak zer landarediri eragingo dion deskribatu beharko da, bereziki tokiko zuhaitz-masak eta intereseko landareak dituzten eremuetan. Azalera, kontserbazio-egoera eta funtzionalitate ekologikoa zehaztuko dira. Halaber, eremuan dauden landaredi aloktono inbaditzaileko espezie guztiak identifikatu beharko dira.

Natura babestearen arloko araudiaren arabera babes-figuraren bat duten espazioei eta eremuei dagokienez, azterlanak hainbat alderdi xehatuko ditu dagozkion kudeaketa-planetan bildutako informazioa oinarri hartuta eta, ahal den neurrian, informazio hori eskuragarri dauden datu eguneratuagoekin zabaldua. Alderdi horiek honako hauek izango dira:

- Dagokion gunea edo eremua izendatzea eta babestea eragin duten balio eta elementu nagusiak deskribatuko dira, hala nola basaflora eta basafaunaren habitatak eta espezieak, lotura-funtzioa duten paisaiako elementuak eta abar.

- Elementu horiek espazioan duten kontserbazio-egoerari eta jasaten dituzten presio eta mehatxu nagusien ebaluazioari buruzko laburpena erantsiko da.
- Gainera, gunearen kontserbazio-elementuei buruzko kontserbazio-arauen eta helburuen laburpen bat jasoko da.
- Babesaren xede diren guneeetan eta eremuetan kudeaketa-funtzioak betetzen dituzten administrazio-organoa eta -unitatea identifikatuko dira.

c. Paisaia. Aztertuko da ea elementu interesgarriak dagoen pertzepzio-ikuspuntutik.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuei buruz jaso ahal izan diren datu guztiak emango dira, kontuan hartuta, besteak beste, higadura-arriskua, lurpeko uren urrakortasuna, arrisku geoteknikoak, klima-aldaketak eragindako arriskuak edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arrisku.

Orobat, airearen, uraren edo lurzorua kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Kutsagarriak izan daitezkeen iturriak eta kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten lurzorua identifikatuko dira, eta baliabide naturalen erabilgarritasuna aztertuko da, bereziki urarena.

Hala dagokionean, aipatutako ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean egon daitezkeen eremuko gunek identifikatu eta lokalizatuko dira.

Edonola ere, eta alderdi horiei dagokienez, Azterketak erantzuna eman beharko die eragindako administrazio publikoei eta Uraren Euskal Agentziak pertsona interesdunei egindako kontsulten izapidetze-prozesuan jasotako txostenean jasotako iradokizunei.

e. Kultura-ondarea. Atzemandako elementu bakoitzaren garrantzia, kalteberatasuna, tresna eta babes-maila zehaztuko dira. Era berean, aipatuko da zein arau-xedapenek ematen dion kalifikazioa eta babesa kultura-ondasunari.

f. Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia, etab.), jendea bizi den gunerik dagoen eta ukituta gerta daitezkeen biztanleria, etab.

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko eremuan, eta labur-labur jasoko da zein diren Planeko jarduketan ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Arreta jarri beharko zaie ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren eremu, elementu edo egoerei, baita eragina jasateko arriskua duten alderdiei ere; horretarako, kontuan hartuko dira planean jasota dauden jarduketan ondoriozko proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak.

Azterketak ingurumen-ikuspegitik arazotsuak izan daitezkeen eremuak detektatu beharko ditu, proposamenak horietara egokitzeko.

Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko. Apartatu hau idazteko, ebazpen honen 3. apartatuan aipatu diren ingurumen-arlo garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan arlo horietarako ezartzen diren mugaketak hartuko dira kontuan, gutxienez.

Planak planteatzen dituen jarduketan garapena baldintza dezaketen alderdiak honako hauek dira: itsas-lehorreko jabari publikoa babesteari lotutakoak, lurpeko urak babesteari lotutakoak, baliabide naturalen kontserbazioari lotutakoak (Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko florako eta faunako habitatak eta espezieak), kultura-ondareari lotutakoak, uholde-arriskuari lotutakoak, ur kutsatuen kudeaketari lotutakoak eta giza habitataren kalitateari lotutakoak. Alderdi horiek guztiak Azterketan aztertuko dira.

6.3. Proposatutako planaren ingurumen-ondoreak

a. Apartatu honetan, identifikatu eta aztertuko da zer efektu izan ditzaketen Planean bilduriko ekintzek 6.2 apartatuan deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta efektu horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren ondorioak identifikatu eta karakterizatzeko, azterketa bat egingo da jakiteko zer interakzio dagoen lanean aurreikusitako ekintzen eta eragin ditzaketen ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, bai eta zer ingurumen-arazo eta -arisku sortu edo areagotu daitekeen ere.

Ezaugarrien deskribapenean, zehatz eta argi adierazi beharko da zer motatako efektuak dauden, honako hauek bereizita: zeharkako efektuak, metatze-efektuak, efektu sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako efektuak, efektu iraunkorrak eta aldi baterako efektuak.

Azterlanaren 6.1.2.c apartatuan identifikatutako ekintza guzti-guztien ingurumen-ondorioak deskribatuko dira, eta espresuki aipatuko da apartatu horretan ekintzei esleitutako kodea.

Azterketak bereziki jorratu beharko ditu jarduketa-proposamen berriei eta Planak indarrean dagoen antolamenduan eragin dituen aldaketekin lotutako ekintzen ingurumen-ondorioak. Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira dagoeneko finkatuta dauden jarduketan eta aurreikusitako jarduketa berrien arteko konbinazioaren ondorio metatzaile eta sinergikoak.

Natura 2000 Sareko kontserbatu beharreko gune eta elementuetan izan dezakeen eragina garrantziko alderdizat jotzen da, eta bereziki hartu behar da kontuan Azterketan.

Era berean, 6.2.1.b apartatuan jasotako beste babes-eremu batzuei eragindako ondorioak aztertu beharko dira.

Era berean, eta hala dagokionean, aztertuko da zer ondorio dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak. Gainera, ingurumen-izaerako edozein efektu bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzake.

Horrela deskribatutako planaren efektu bakoitzari, berriz, kode bat esleituko zaio. Kode hori azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauen analisia jorratuko da:

- Behar bezala ezaugarritu eta baloratu beharko dira Urdaibaiko Ibai Sarea KBEko, Urdaibaiko artadi kantaularrak KBEko, Urdaibaiko Itsasertzak eta Padurak KBEko (Urdaibaiko Itsasertzaren HBBE barruan) eta interes bereziko beste eremu batzuetako kontserbazio-elementuetan eragindako ondorioak. Balorazio hori egiteko, kontuan hartu beharko dira 6.2.1.b apartatuan zehaztutako kontserbazio-egoera, presioak eta mehatxuak eta kontserbazio-helburuak. Kasu horretan, apartatu hori xehetasun-maila jakin batekin garatuko da, aurreikus daitezkeen ondorioak behar bezala identifikatzeko eta eraginaren neurriaren gainean egon daitezkeen zalantzak argitzeko.

- Azterketak balioetsi beharko du proposatutako jarduketak egokiak ote diren lurraldearen lotura ekologikoa lortzeko, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 4. artikuluan zehazten denaren arabera. Hain zuzen ere, biodibertsitatearentzat garrantzi handiena duten naturaguneen arteko lotura izango da kontuan, Ebazpen honen 3. apartatuan xedatu denaren arabera.
- Planetik eratorritako jarduketek natura-ondarean dituzten efektuak zehaztu eta baloratuko dira, Planaren afekzio-eremuan identifikatutako ingurumen-aldagai guztiei eragin ote diezaieketen kontuan hartuta, arreta berezia eskainiz Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko landarediari eta habitatei –bereziki lehentasunezkoek–, mehatxatutako fauna- eta flora-espezieen banaketa-eremuei, interes geologikoko lekuei, korridore ekologikoei, eta abarrei.
- Batasunaren intereseko landarediaren eta habitaten gaineko inpaktua baloratzeko, eraginpeko habitat motak eta eraginpeko azalera (aurretiko balioespenak) ez ezik, kontserbazio-egoerari, adierazgarritasunari, bitxitasunari, kalteberatasun-mailari eta konektagarritasunari eusteko betetzen duten eginkizuna ere kontuan hartuko dira.
- Flora-espezie mehatxatu bakoitzerako, edo EAEn oso hedapen mugatua duen espezie bakoitzerako, eraginpeko espezieak identifikatuko dira eta behar diren zehaztapenak ezarriko dira zuzeneko eta zeharkako eraginak saihesteko (moteltze-eremuak ezarri, adibidez).
- Plana gauzatzeko jarduketek paisaian duten eragina analizatuko du Azterketak, Planaren eremuko paisaiaren ikuspegi-eremuarekin, kalitatearekin eta ahultasunarekin zerikusia duten alderdiak barne hartuta.
- Azterketak behar bezala aztertu beharko ditu baliabide hidrikoen defizitari erantzuteko beharrezko jarduketek eragin ditzaketen ondorioak. Hala badagokio, ibilgu ekologikoei eragindako kalteak baloratu beharko dira.
- Itsas-lehorreko jabari publikoan izan dezakeen eragina eta haren zortasun-eremuaren gaineko eragina ebaluatuko dira, eta arlo horretako araudia betetzen dela justifikatuko da.
- Horrez gain, aztertu egingo da ea Plana bateragarria den Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Uholde Arriskua Kudeatzeko 2015-2021erako Planarekin, ES017-BIZ-OKA-01 Gernika UAHEari dagokionez.

b. Identifikatu eta kodetutako ondorio bakoitza baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Efektuen larritasuna eta irismen espaziala.
- Eraginpean gera daitekeen eremuaren balioa eta urrakortasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik dagoen.
 - Aurkako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzorua kalitate-estandarrek edo muga-balioak gaindi dezakeenik.
 - Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, efektuak kuantifikatu egingo dira Planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoera-aldaketei buruzko datu neurgarriak erabiliz. Hala badagokio, adieraziko da zer ziurgabetasun-maila dagoen efektu horien iragarpenean.

c. Halaber, ahal den neurrian, efektuak kartografia bidez lokalizatuko dira, eta, orobat, zehaztu egingo da plan edo programaren zer fasetan gerta litezkeen, aurreikuspenen arabera.

d. Adieraziko da ea hautemandako ondorio horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein plangintza-tresnari eragingo zaion.

e. Hala deskribatutako ingurumen-ondorioak hierarkizatuko dira, eta horien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

6.4. Prebentzio-, zuzenketa-eta konpentsazio-neurriak

a. Apartatu honetan deskribatuko da zer neurri aurreikusten diren azterketaren 6.3 apartatuan deskribatutako ingurumen-ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu beharko dute ez dela ingurumen-efektu garrantzitsurik sortuko, Planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Natura-baliabideak, natura- eta kultura-ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta atzemandako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea izango dute helburu.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-ondorioekin. Neurriak deskribatu egingo dira, eta azterketako 6.3 apartatuan identifikatutako efektuekin –prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin– lotuko dira.

c. Adieraziko da planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta espresuki zehaztuko da planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.

d. Hala badagokio, prebentziorako, zuzenketarako eta konpentsaziorako neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarria edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko diseinatzen diren etorkizuneko proiektuetan.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio eta zuzenketarako neurrien aurrekontua ere jasoko da, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona adierazteaz gainera.

6.5. Ingurumena zaintzeko programa

a. Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du, eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horien helburua alderdi hauek kontrolatzea izango da:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen efektu kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko neurriak behar bezala ezartzen direla gainbegiratzea.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita Plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen bilakaera ere.
- Plana gauzatzeak eragindako ingurumen-ondorioak aztertzea, aurreikusi gabeko eragin kaltegarriak azkar identifikatzeko eta horiek eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.
- Aztertzea ea prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.

b. Jarraipen-neurriak identifikatu egingo dira, eta neurri horiek bat etorri beharko dute azterketaren 6.4 apartatuan jasotako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriekin.

c. Ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du zer adierazle proposatzen diren azterketan, baita zer proposamen zehatz egiten den kasu bakoitzean datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruz ere.

6.6. Ingurumen-laburpena

a. Deskribatuko da zelan txertatu planean ingurumen-alderdiak. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren Azterketaren 6.1.1 apartatuan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

b. Aztertuko da zer nolako probabilitatea dagoen Planak etorkizunean ingurumenean efektu nabarmenak izateko, eta behar diren argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes-, zuzenketa- eta/edo konpentsazio-neurriak Planean txertatuz gero, oso arrisku txikia dagoela efektu nabarmen horiek gertatzeko, eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik Plana garatzeko. Ondorio hori laburbiltzeko, Azterketaren gainerako apartatuetan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7. Laburpen ez-teknikoa

a. Azterketak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta laburpen horrek, bestalde, ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonen erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du.

b. Laburpen horri, gainera, egindako ebaluazioa hobeki ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko zaio, edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Jendaurreko informazioko izapideak eta kontsultak

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 73. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du Planaren hasierako bertsioa, baita ingurumen-azterketa estrategikoa ere, gutxienez 45 eguneko epean.

Era berean, irismeneko dokumentu hau egiteko kontsultatu diren eraginpeko administrazio publikoekin eta pertsona interesdunekin kontsultatuko du gutxienez Planaren hasierako bertsioa, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera. Honako hauek izan dira:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zerbitzua.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- IHOBE.
- Uraren Euskal Agentzia.
- Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiko Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluaziorako atala. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiko Natura Ondarearen Zerbitzua. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Kultura Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Nekazaritza Zuzendaritza Nagusiko Ehiza Fauna eta Arrantza Zerbitzua. Bizkaiko Foru Aldundia.

- Muruetako Udala.
- Foruko Udala.
- Gernika-Lumoko Udala.
- Kantauriko Ur-konfederazioa.
- Euskal Herriko Itsasertz Mugapea.
- Eguzkizaleak Aisialdirako Elkartea.
- Ekologistak Martxan.
- Zain Dezagun Urdaibai.

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organoari, honako hauek barnean hartuta: planaren edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, eta laborpen-dokumentu bat, planaren edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, nahitaez bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estragikokoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

[Dokumentuak aurkezteko gida \(euskadi.eus\)](#)

Bigarrena.- Ebazpen hau jakinaraztea Bizkaiko Foru Aldundiko Lurralde Kohesiorako Zuzendariordeztzari.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 1a.

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria

Amaia Barredo Martin

Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordea

(otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren bidez)